

KUTXABANK TXARTELEN SUSTAPEN KANPAINA

«2026KO ASTE SANTUKO SUSTAPENA: ERREGAI-TXEKEEN ZOZKETA»

1.- Zertan datza ekimen hau?

KUTXABANK SAK (aurrerantzean, Kutxabank edo Bankua) estatu mailako sustapen-kanpaina bat egingo du, «2026KO ASTE SANTUKO SUSTAPENA: ERREGAI-TXEKEEN ZOZKETA» izeneko (aurrerantzean, Sustapena). Kanpaina horretan, 18 urte baino gehiagoko pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, Kutxabanken bezero badira eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Zozketaren xede bakarra publizitatea eta promozioa egitea da, eta, parte hartzen baduzu, ez duzu kostu gehigarrik izango.

2.- Zer sari jaso dezakezu sustapen honetan parte hartzeagatik?

Sustapen honek sari hauek izango ditu:

60 sari: 100 euroko erregai-txeke bana, Repsol taldearen gasolina-zerbitzuguneen sareari atxikitako estazioetan erabiltzeko. Txekea penintsulan eta Balear Uharteetan truka daiteke (ez du balio Kanariar Uharteetan).

Kontsultatu atxikitako zerbitzuguneak hemen: www.chequecarburante.es.

Irabazleak 2027ko maiatzaren 31ra arte trukatu ahal izango du erregaitan erabiltzeko oparitxekea.

Kutxabankek ez du erantzukizunik izango txekea trukatzea ezinezkoa bada bere borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik. Era berean, Kutxabank ez da izango saria trukatu daitekeen gasolina-zerbitzuguneek emandako zerbitzuaren erantzule, ez eta hirugarren horien jarduera edo ez-egiteen erantzule ere, aplikatu beharreko araudiak baztertu ezin den erantzukizuna ezartzen duenean izan ezik.

3.- Zenbateko iraupena du sustapenak?

Sustapenak 2026ko martxoaren 25etik 2026ko apirilaren 30era arte iraungo du, biak barne.

Oinarriok Bilboko Vicente M^a Arenal Otero notario jaunaren aurrean gordeko dira. Zozketa notario beraren aurrean egingo da, 2026ko maiatzaren 20an edo data horretatik aurrera lehenbailehen, adierazitako egunean egitea materialki ezinezkoa bada. Hala izanez gero, aldaketaren berri emango dizugu ahal den bezain laster.

Kutxabankek bertan behera utzi ahal izango du sustapen hau, eta baliogabetu edo haren baldintzaren bat aldatu ahal izango du, baldin eta, arrazoi teknikoak, sanitarioak, ezinbestekoak edo bere borondatearekin zerikusirik ez duen beste edozein arrazoi tarteko, sustapena ezin bada normal garatu. Horren ondorioz ez da inolako erantzukizunik sortuko. Hala bada, ahal bezain laster jakinaraziko dugu sustapenaren oinarri eta baldintza berriak zein diren, edo sustapena baliogabetu dela.

Era berean, Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain, saridunak saria jaso ezin badu Kutxabankek zirikusirik ez duten arrazoiengatik.

4.- Zer baldintza bete behar dituzu sustapen honetan parte hartzeko?

Sustapen honetan 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek har dezakete parte, Kutxabankek bezero badira eta zozketaren egunean (alegia, 2026ko maiatzaren 20an) baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- Gutxienez, aurrezki-kontu eta pertsona fisikoentzako finantza-txartel aktibo hauetako baten titularra izatea Kutxabanken: Visa Classic, Visa Oro, Visa Oro Dual, Visa Oro Profesional, Visa Infinite, Visa Platinum, Visa Dual, Visa Dual Profesional, Visa Dual Korner, Visa Dual Red, Visa Dual K26, Visa Dual K26+, Visa Dual 100%, Visa Dual Nagusi, Visa Nakar, Visa Partaide, Visa Dual Real Sociedad, Visa Debit, Visa Debit Profesional, Visa Debit Korner, Visa Debit Red, Visa Debit K26, Visa Debit K26+, Visa Debit 100%, Visa Debit Nagusi, Visa Debit Real Sociedad, Visa Extra y Visa Solidaria.
- 2026ko martxoaren 25etik 2026ko apirilaren 30era bitartean, biak barne, ezeztatu gabeko erosketak eginda izatea, eta horien zenbateko metatua gutxienez 150 eurokoa izatea. Zenbateko hori parte hartzen duzun txartel guztiekin egindako kontsumoaren guztizkoa da.
- Kutxabanken Bizumeko kontratua aktibo izatea.

150 euroko gutxieneko zenbateko metatua kalkulatzeko, titularra zaren (zure NANarekin horretarako egindako fitxategi informatikoan identifikatuta) txartel guztiekin egindako kontsumoa batuko da, zure txartel kopurua edozein dela ere.

Pertsona bakoitzak sari bakarra jaso dezake. Zenbait aukerarekin parte hartzen baduzu, eta aukera batekin baino gehiagorekin lortzen baduzu saria, saritutako lehen aukerari dagokion saria baino ezin izango duzu eskuratu.

Kodea sustapena kudeatzeaz arduratzen den hornitzaileak bidaliko du: Chequemotiva. Hona hemen harremanetarako datuak:

Chequemotiva sozietatearekin harremanetan jartzeko datuak:

- Telefonoa: 91 426 3880
- Posta arrunta: Alcalá 106. 28009 Madril
- Webgunea: www.chequemotiva.com

Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik bere gain hartzen Chequemotiva sozietatearen kudeaketagatik, ez sozietate horrek egindako ekintzengatik eta emandako zerbitzuengatik, ez eta sozietate horrek sustapen hau gauzatzeko kontratatutako profesionalekin ere.

Txekeak trukatzeko sistema arautuko duten baldintza zehatzak Chequemotiva sozietateak ezarritakoak izango dira, eta Kutxabankek uko egingo dio harreman horretatik etor litekeen erantzukizun orori, Kutxabank ez baita harreman horren parte eta ez baitu harreman hori interpretatzeko betebeharririk.

Chequemotiva sozietateak sustapena gauzatzea sozietate horren erantzukizun bakar eta eskusiboa da, eta, beraz, ondorio guztietarako, ulertu behar da sustapeneko parte-hartzaileak Chequemotiva sozietateak ezarritako zehaztapen eta baldintzekin lotuta egongo direla.

Kutxabankek ez du inolako betebeharrak edo erantzukizunik izango, eta Kutxabankek ez du erantzukizunik bere gain hartuko sustapenaren gauzatzeari buruz parte-hartzaileek aurkezten dituzten erreklamazioekin lotuta.

5.- Nor dago sustapen honetatik kanpo?

- Kutxabankeko langileak.
- Bankuak, sustapenak iraun bitartean eta saria jaso artean, sustapenetik kanpo utzi ahalko ditu bankuan saldo zordun mugaeguneratuak dituzten pertsonak, hau da, saldo negatiboak dituztenak.
- Datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera publizitatetik kanpo uzteko eskatu duten pertsonak eta jakinarazpen komertzialetatik kanpo uzteko fitxategi komun batean daudenak.

6- Zein da sustapenaren mekanika?

Txartelekin egindako kontsumoa kalkulatzeko, titularra zaren zordunketa-txartelekin eta kreditu-txartelekin/txartel dualekin ezeztatu gabeko erosketak guztiak zenbatuko dira, gutxienezko zenbatekoa 150 eurokoa izanik. Partaidetzak kalkulatzeko, kreditu-txartelen/txartel dualen bidez egindako erosketen kasuan, zenbatekoen bikoitza zenbatuko da.

Parte-hartzaile bakoitzari aukera edo partaidetza bat emango zaio, egitura honen arabera, eta kontsumoa egiten den produktu zehatzaren arabera bereiziko da:

6.1 Visa Dual Korner, Visa Dual K26, Visa Dual K26+, Visa Dual Red, Visa Debit Korner, Visa Debit K26, Visa Debit K26+ eta Visa Debit Red txartelen titularrak: Aukera edo partaidetza bat puntu honetan aipatutako txartelekin kontsumitutako 50 euroko.

Hau da, bezero batek 50 euroko erosketak egiten badu zordunketa-txartelaz, eta 200 eurokoa txartel dualaz, honela egingo da kalkulua: $50+(2*200) = 450$ €. Beraz, 9 partaidetza emango zaizkio. Zatidura horren emaitza zenbaki oso bat da (dezimalak biribildu gabe), eta adierazten du zenbat aukerarekin parte hartzen duzun zozketan.

6.2 4. puntu honetan aipatutako gainerako txartelen titularrak, hau da, Visa Classic, Visa Oro, Visa Oro Dual, Visa Oro Profesional, Visa Infinite, Visa Platinum, Visa Dual, Visa Dual Profesional, Visa Dual 100%, Visa Dual Nagusi, Visa Nakar, Visa Partaide, Visa Dual Real Sociedad, Visa Debit, Visa Debit Profesional, Visa Debit 100%, Visa Debit Nagusi, Visa Debit Real Sociedad, Visa Extra y Visa Solidaria: Aukera edo partaidetza bat puntu honetan aipatutako txartelez kontsumitutako 150 euroko.

Hau da, bezero batek 50 euroko erosketak egiten badu bere zordunketa-txartelaz, eta 200 eurokoa bere kreditu-txartelaz eta txartel dualaz, honela egingo da kalkulua: $50+(2*200) = 450$ €. Beraz, 3 partaidetza emango zaizkio. Zatidura horren emaitza zenbaki oso bat da (dezimalak biribildu gabe), eta adierazten du zenbat aukerarekin parte hartzen duzun zozketan.

«Aukerak» korrelatiboki zenbakituko dira 1 zenbakitik aurrera, eta fitxategian zure NAN zenbakiarekin identifikatuko dira; hala, esleituta dituzun adina partaidetza-aukera islatuko dira. NANak fitxategian ordenatuko dira txartelaren zenbakiaren arabera, txikitik handira. Txartel bat baino gehiago baduzu, ordenatzeko, zenbakirik txikiena duen txartela hartuko da erreferentziatzat.

Kutxabankek sustapen honetan parte hartzea ahalbidetzen dizuten baldintza guztiak betetzen dituzula egiaztatuko du. Fitxategi informatiko bat egingo da, datu hauek jasota: bezero (NAN) bakoitzaren kontsumoa eta bezero bakoitzari esleitutako aukera kopurua, titularra den txartel guztiekin egindako kontsumo globalaren arabera, baldin eta oinarriotan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Aukera bakoitza bezeroak kontsumitzeko erabili duen txartelaren arabera egindako kontsumo globalarekin lotuta dago: partaidetza bat 50 euroko, 6.1 puntuan adierazten den bezala, edo 150 euroko, 6.2 puntuan adierazten den bezala (NAN bidez identifikatuta).

Zozketa honen oinarriak eta fitxategi informatikoa Bilboko Vicente M^a Arenal Otero notarioaren aurrean gordeko dira.

Zozketa 2026ko maiatzaren 20an egingo da, notarioaren aurrean, edo data horretatik aurrera lehenbailehen, adierazitako egunean egitea materialki ezinezkoa bada. Hala izanez gero, aldaketaren berri emango dizugu.

Fitxategi hori hilabetez gordeko da, zozketa egiten den egunetik zenbatzen hasita, interesdunek egiaztatzeko.

Zozketa egiteko, notarioak ontzi batetik zenbaki bat aterako du, esleitutako lehen zenbakiaren eta azken zenbakiaren artean egongo dena, atal honetan adierazitakoaren arabera. Zenbaki hori izango da lehen aukera saritua.

Saritutako beste 59 aukerak eta, ondoren, erreserbako 5 aukerak lortzeko, zenbaki hau gehituko zaio lortutako zenbakiari, prozedura informatikoen bidez: fitxategian erregistratutako aukeren guztizko kopurua zati sarien guztizko kopurua (60) gehi erreserben kopurua (5); hau da, zati 65. Zatidura beherantz biribilduko da (zenbaki osoa; dezimalak kenduta), aukera saritu guztiak lortu arte (modalitate honetan, 59 aukera). Adierazitako eragiketa egiten jarraituko da erreserba-aukerak lortzeko (5). Ondorio horietarako, fitxategiaren amaierara iritsiz gero, erregistratu den lehen aukeratik jarraituko da kalkulua egiten, saritutako (60) eta erreserbako (5) aukeren kopurua osatu arte. Erreserbakoak atera diren hurrenkeraren arabera hartuko dira halakotzat.

Pertsona bakoitzak sari bakarra jaso dezake. Zenbait aukerarekin parte hartzen baduzu, eta aukera batekin baino gehiagorekin lortzen baduzu saria, saritutako lehen aukerari dagokion saria baino ezin izango duzu eskuratu.

7. Nola jakinarazi eta emango dizugu saria?

Ondorio guztietarako, zerga-ondorioak barne, gutunez, telefonoz, posta elektronikoz edo Bankuari harremanetarako eman diozun beste edozein bitartekoren bidez jakinaraziko dizugu saria emango zaizula.

Zozketa egin eta zazpi (7) egun naturaleko epean ezin bagara zurekin harremanetan jarri zozketaren emaitzaren berri emateko, sariari uko egin diozula pentsatuko da, eta Kutxabank ez da horren erantzule izango; hori horrela, erreserbei automatikoki esleitu ahal izango die saria, erreserben hurrenkerari jarraituz.

Saria egokitzen bazaizu, onartu duzula baieztatu behar duzu. Horretarako, onespren-fitxa sinatu beharko duzu, saria jakinarazi eta hurrengo bost (5) egun naturaletan. Saria onartzeak, beraz, lege-oinarriok onartzen dituzula adieraziko du. Kutxabankek ez badu epe horretan jakinarazpenik jaso, sariari uko egin diozula pentsatuko da, eta Kutxabankek zilegi izango du saria erabiltzea.

Sariak emateko, bezeroak Kutxabanki emandako harremanetarako datuetan agertzen den helbide elektronikoa erabiliko da, eta hura trukatzeko behar den kodea erantsiko da, edo egoki iritzitako moduan eta lekuan.

Ezin izango duzu saririk jaso zozketaren egunean ezeztaturik badituzu sustapen honetan parte hartzeko aukera ematen zizuten kontratuak.

Saria esleitzeko, oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzu. Kutxabankek sustapenetik kendu ahal izango du sustapenaren oinarriak bete ez dituen edozein parte-hartzaile, justifikatutako arrazoiengatik.

Saria eman gabe geratzen bada erreserba kopurua agortu delako, Kutxabankek saria erabiltzeko eta emateko eskubidea izango du.

8.- Saria aldatzea

Sustapen honen xede den saria ezin da inola ere aldatu, moldatu edo konpentsatu, ezta eskudiruko balioaz ordeztu ere. Kutxabankek saria ordeztu ahal izango du, horretarako bidezko edo ezinbesteko arrazoirik badago.

9.- Sariari uko egitea

Sariari uko egin diezaiokezu, baina ezin diozu beste norbaiti eman. Kasu horretan, zozketaren hurrengo erreserbari eskainiko zaio.

Sariari uko egin nahi badiozu, idatziz jakinarazi behar diozu Bankuari, sariaren berri jaso eta hurrengo bost (5) egun naturaletan, eta duzu inolako konpentsaziorik jasoko. Kutxabankek ez badu epe horretan jakinarazpenik jaso, sariari uko egin diozula pentsatuko da, eta Kutxabankek zilegi izango du saria erabiltzea.

10.- Datu pertsonalak babestea

Sustapenean parte hartzeak esan nahi du Kutxabanken Informazio Sistematan sartuko direla parte-hartzaileen datu pertsonalak, partaidetza kudeatu ahal izateko.

Saridunaren izena, abizenak eta/edo irudi pertsonala xede gehigarri bakarrekin tratatuko dira: edozein publizitate- eta/edo sustapen-jardueratan eta zernahi bitarteko, euskarri edo formatutan erreproduzitzeko, erabiltzeko edo zabaltzeko bakar-bakarrik. Jarduera horiek, bestalde, ez dute emango inolako eskubiderik ordainsari edo onurarik jasotzeko, baldin eta saridunaren edo, kasuaren arabera, haren legezko ordezkariaren berariazko baimena badago.

Era berean, jakinarazten da aukeran dela erreklamazio bat aurkeztea kontrol-agintaritzan, noiznahi eta datu pertsonalen tratamenduarekin lotutako edozein eztabaidarekin loturik, eta aukeran dela, orobat, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramangarritasunerako eskubideak baliatzea, bai eta datu pertsonalei buruzko erabaki indibidual automatizatuen xede ez izatekoa ere. Eskubide horiek idatziz baliatu ahal izango dira, eta, horretarako, Kutxabanken helbide sozialera idatzi behar da, edo info@kutxabank.es helbide elektronikora, bestela. Bi kasuetan, nortasuna egiaztatzeko agiria erantsi beharko da, beharrezkoa izanez gero.

Uste baduzu zure datuak ez ditugula araudiaren arabera tratatu, jarri harremanetan Datuak Babesteko Ordezkariarekin, dpo@grupokutxabank.com helbidean.

11.- Zein da zure sariaren tratamendu fiskala?

Saridunaren konturakoa izango da kanpaina honetako sarien ondorioz ezarritako edozein zerga-karga. Saria onartzeak, aldi berean, sustapenaren lege oinarri hauek onartzea dakar, ondorio guztietarako, fiskala barne.

13.- Oinarriak kontsultatzea

Sustapen honetan parte hartzen baduzu eta saria onartzen baduzu, oinarriok onartzen dituzu, entitateak haren mekanika zehazteko ezarritako baldintzei eta zure berariazko baimenik behar ez duten alderdiei dagokienez. Kutxabankek Sustapenaren oinarriak urratzen dituzten erabiltzaileak deskalifikatu ahal izango ditu; adibidez, Sustapen honetan parte hartzeko aukera ematen zioten produktuak ezeztatuta. Oinarri hauek bezeroen eskura egongo dira www.kutxabank.es webguneetan.